UZKI-ONDESTEKO KIRURGIA
INTERBENTZIO-ONDOKO ZAINKETAK ETA GOMENDIOAK

EGUNEKO OSPITALE MEDIKO-KIRURGIKOA

Uzki-ondestetik operatu berri zaituzte. Behar bezala suspertzeko, bete aholku hauek:

- Hasieran, dieta biguna egin behar duzu, zuntz askokoa (fruituak, barazkiak eta lekaleak...), eta likido asko edan behar duzu, idorreriarik ez izateko.
- Etxera iristean, hartu atseden. Hurrengo egunean altxa ahalko zara.
- Hartu gorputzeko tenperatura arratsalde-gauetan, hurrengo egunetan.
- Ez erabili komuneko paperik.
- Hartu eserleku-bainuak ur epelarekin egunean lau aldiz eta kaka egin ondoren, bost minutuz; ez egon hamar minutu baino gehiago, are gutxiago kaka egin ondoren. Gero, lehortu eskuzapiarekin.
- Dutxatu egin zaitezke, bainatu ez.
- Ez beldurtu odol pixka bat badarizu edo muki pixka bat kanporatzen baduzu (desagertuko da).

<u>BALDIN ETA:</u>

- odol asko badarizu uzkitik.
- Min handia baduzu eta agindutako analgesikoekin arintzen ez bada.
- Kakarik egin ez baduzu hirugarren egunean.
- Gorakoa maiz izaten baduzu.
- 38º baino gehiagoko sukarra baduzu.

Joan zaitez *LEHEN MAILAKO ARRETARAKO medikuarengana*; edo

astelehenetik ostiralera, 20:00etatik 08:00etara, eta larunbatetan eta jaiegunetan, eguneko 24 orduetan,

LARRIALDIETAKO ZERBITZURA

Gehiago jakin nahi baduzu, ez egon dudatan, eta galdetu artatzen zaituzten profesionalei.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD